


VITORIA-GASTEIZ HEZIKETARAKO ESPAZIO GISA



ERDI AROKO Gasteiz



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

DLH

ibilibidea

2007ko uztaila

Egilea:

Udaleko Hezkuntza Saila

Diseinua:

Javi Roa eta Enklabe, K.S.T.

Argazkiak:

Luis María García Maestu (Udaleko Hezkuntza saila)

16. orrialdeko marrazkiak:

José Javier Quintana García eta Carlos Martín Merino (*Erdi Aroko Gasteiz*. Vitoria-Gasteizko Udala, 1993)

Adolfo Zalduendo Lavín (*Biztanlegoa: Bilakaera eta migrazioen joan-etorriak*. Vitoria-Gasteizko Udala, 1994)

Berrikusita eta eguneratuta:

Udaleko Hezkuntza Zerbitzua (2018ko uztaila).

Enklabe K.S.T. (2016ko abendua).

Euskaratzea:

AIXE, S.L.

Argitaldaria:

Vitoria-Gasteizko Udala – Udaleko Hezkuntza Saila

ERDI AROKO Gasteiz

1. AURKEZPENA.....	5
2. IBILBIDEA.....	6
3. GOIURI PLAZA.....	7
4. SANTA MARIA KALEA.....	9
5. BAKARDADE KANTOIA.....	10
6. HEDEGILE KALEA.....	12
7. BURUILERIA PLAZA.....	13
8. AIZTOGILE KALEA.....	14
9. JARDUERAK.....	18
10. GLOSARIOA.....	23
11. BIBLIOGRAFIA.....	24

Historia eta Arte Ibilbideak programan parte hartzean, zeure hiria hobeto ezagutzeko aukera izango duzu: sorrera, bilakaera, eta gizartearen, ekonomiaren, hirigintzaren zein artearen aldetik garai bakoitzean izan dituen ezaugarriak, egungo ezaugarriekin alderatuta.

Hiria hobeto ezagututa, gehiago estimatuko duzu, zaintzen ahaleginduko zara, eta hiriak eskaintzen dizkizun zerbitzuak era egokian erabili ahal izango dituzu.

1. AURKEZPENA

Gaur, Erdi Aroko Gasteiz deritzogun ibilbidea egingo duzu; Gasteizko hirigune zaharrean barrena doana da. Alde horri beste izen batzuekin ere deitzen zaio: alde zaharra, hirigune historikoa...





Ibilbide honi esker, gure hiriaren sorburua ezagutu ahal izango duzu. Hasieran — duela mila berrehun bat urte—, Gasteiz herrixka txiki bat zen. Herrixka honi, XII. mendearen erdialdean, Nafarroako errege Antso VI.a Jakitunak Victoria izena jarri zion. 1181. urtean, errege horrek berak hiriari forua eman zion, eta beranduago, 1431. urtean, Gaztelako errege Joan II.ak, hiri-titulua eman zion.

Pentsatuko duzunez, ordutik gaur egun arte hiriko alde horretan makina bat aldaketa gertatu da. Hainbat galdera sortuko zaizkizu: Zer geratzen da antzinako Gasteiz herrixka hartatik? Eta hasierako Victoria hiribildutik? Nor ziren biztanleak? Nola bizi ziren? Zer gertatu da mende hauetan guztietan?

Gure Erdi Aroko hiria ezagutzea galdera horien eta beste askoren erantzuna aurkitzea da. Izan ere, beste galdera asko eta asko sortuko zaizkigu, denboraren tunel zoragarri eta enigmatikoan barneratuz goazen heinean.

Hala ere, ezin duzu ahaztu hirigune zaharra, gune historiko berezia ez ezik, hiriko auzo bat dela, eta ezaugarri bereziak dituela. Ibilbide honetan, gure hiriko auzune enblematiko horren gaur egungo ezaugarriak ere ezagutu ahalko dituzu.

2. IBILBIDEA



3. GOIURI PLAZA


Ikus dezakezunez, gure hiriaren zati bat muino baten gainean dago. Gainerakoa lautada zabal batean hedatua da.

Muino horren goialdean zegoen antzinako Gasteiz herrixka. Hura inguratuz, harresi bat eraiki zuten XII. mendearen hasieran. Handik gutxira, Nafarroako errege Antso VI.ak fundazio-foru bat eman eta Victoria izen berriarekin bataiatu zuen.

Hastapenetan, luzetara ezarritako hiru kalek eratzen zuten Victoria. Kale horiek bat zetozen oraingo Santa Maria, Eskola eta Frai Zacarias kaleekin. Hiribilduaren iparraldean, Santa Maria elizagotorlekua altxatu zuten; eta hegoaldean, San Bizente gaztelua.



Goiuri Plaza



Gune hau, Goiuri, hiribildu nafarra edo Landatxo izenekin ere ezaguna, askotan aldatu da mendez mende.

Santa Maria katedralean eta ingurumarietan eginiko arkeologia-indusketei esker, badakigu toki hartan VIII. mendean ere bazela nekazarien giza-kokagune bat. Antzinako biztanleak nekazariak eta abeltzainak ziren, eta zurez eta buztinez egin zituzten etxeak. Etxebizitzaren ondoan, etxola txikiak izaten zituzten, aleak eta abereak; bazituzten, halaber, larraina, eta baratze txikia. Urteen joanean, etxeak harrizko oinarri baten gainean eraikitzen hasi ziren, zura usteltzea saihesteko. XI. mendean, nekazarien herrixka harrizko harresi handi batek inguratu zuen, dorreak ere jarrita.



Ikusiko duzunez, gaur egun gune horretan ia ez da geratzen Erdi Aroko eraikinik. Antzinako etxe askoren ordez, XVI., XVII. eta XVIII. mendeetan, jauretxeak eta jauregiak jarri zituzten, edota alportxa-etxe berriak.

4. SANTA MARIA KALEA

Jatorrizko Gasteiz herrirka eratzen zuten hiru kaleetatik erdikoa da. Gaur egun, historiako hainbat alditan egindako eraikinak daude, egungo beste batzuekin batera.

GONZALEZ DE TXABARRITARREN JAURETXEA

Eraikin hori XVII. mendean altxatu zuten, eta hainbat zereginetarako erabili da: apezpiku-jauregia, kuartela, kartzela, eta abar. 1985ean, Udalak erosi zuen, eta auzuneko bizilagunentzako gizarte-etxetzat birgaitu.




*Gonzalez de Txabarritarren Jauretxea
(egun, Landatxo Gizarte Etxea)*



Santa Maria Katedrala

SANTA MARIA KATEDRALA

Nafar hiribilduko eliza-gotorleku txikia zen, hasieran. XIII. eta XIV. mendeetan, oraingo eliza eraiki zuten, estilo gotikoko joerei jarraituz. Geroztiko mendeetan, beste estilo batzuetako elementuak gehitu dizkiote, hala barruan nola kanpoan (portada, dorrea...). Eliza horrek, arian-arian, garrantzi handia hartu zuen; eta, 1862an, azkenik, katedral egin zuten.




5. BAKARDADE KANTOIA

Erdi Aroko hiribilduaren lehenengo zabalkundeari dagokion eremuan sartzera zoaz. Zabalkunde hura Nafarroako errege Antso VI.ak bultzatu zuen, antzinako Gasteiz herrixkari Victoria izena jarri zion errege berberak. Hiru kale berri eraiki zituzten (Hedegile, Zapatari eta Errementari kaleak) bai eta kale horiek zeharka komunikatzen zituzten kantoiak eta kale estuak ere. Kantoi horien bidez iristen zen jendea hiriaren gorenera. Hori 1181. urtean gertatu zen, erregeak hiriari forua eman zion urte berean.

Hiria zabaltzean, beharrezkoa izan zen harresien beste lerro bat egitea, mendebaldean, Zapardiel ibaiaren ondoan. Ibai horrek egiten zuen babes-erreten naturalaren eginkizuna. Diputazio kalearen eta Jesusen Zerbitzarien kalearen azpitik doa orain ibaia, bideratuta. Gerora, harresi horri atxikita eraiki zituzten San Pedro eliza eta hiria babesten zuten beste dorre batzuk.

Kantoiak zabalagotuz eta berrituz joan ziren, Hirigune Zaharraren higiene- eta hirigintza-baldintzak hobetze aldera: zorua harriztatu zuten; etxeetatik zetozen ur zikinak lurpean kanalizatu zituzten; eta, kantoiak zabaltzeari esker (etxe bat eraitsi zuten kantoiaren alde bakoitzean), haize- eta eguzki-argi gehiago sartzen zen. Hala ere, San Roke kantoira inguratzen bazara, oraindik ere ikus dezakezu nolakoak ziren antzinako kantoiak.




San Roke kantoia



Bakardade kantoia

6. HEDEGILE KALEA



Hedegile kalea

Toki faltak eraginda, gero eta etxe estuago eta sakonagoak egin zituzten. Forma hori zutela-eta, alportxa-etxeak esaten zaie. Fatxada estuak zituztenez, kale bakoitzean etxe gehiago egin ahal izan zituzten; eta hiruzpalau solairuko garaiera zutenez, etxebizitza-kopurua ere handitu zen. Etxe haiek eraikitzean, artisau-ekonomiari egokitu zitzaizkion: etxebizitzak goiko solairuetan, eta lantegi-denda etxabeanean.

Hiriaren lehenengo zabalkunde hartako kaleen izenetan ageri denez, hirian artisauek eta salerosleak ezarri ziren, lanbidearen arabera kale eta eremu jakin batzuetan elkartuta. Ogibide berekoak zirenak gremio berean biltzen ziren. Gremioak elkarte batzuk ziren, lanbidearen interesak zaintzen zituztenak eta beren arauak zituztenak.

Victoria hiribilduko biztanleak, berriz, auzoterietan taldekatzen ziren. Kale berean edo kantoien arteko kale-zati berean bizi zirenek elkarteak eratzen zuten. Elkarte horiek, elkar babesteko eta guztien gaik (garbiketara, zaintza, suteei aurre egitea...) zaintzeko balio zuten.



Alportxa etxeak

7. BURUILERIA PLAZA


Orain zauden inguru honi, Erdi Aroko Txokoa esaten diote, hemen ugariak baitira Erdi Aroko eraikinak:

ANDATARREN DORRETXEA (XV. mendearen bukaera)


Babes-izaerako dorre hori, hiria iparraldetik babesteko estrategikoa zen toki batean dago. Andatar familiarena zen. Andatarrek Kuartango haranean zuten jatorria, eta XV. mendean kokatu ziren hiribilduan.

Dorreak izan dituen aldaketak gorabehera, babeserako eraikuntzetan tipikoak diren elementuak ikus ditzakezu oinarrian: matakana, gezileihoak, eraikuntzaren sendotasuna...

Egun, etxebizitzak dituen eraikin bat da.



Andatarren dorretxea



Portalea

PORTALOA (XV. mendearen bukaera edo XVI.aren hasiera)

Ostatu-etxea zen. Ate handi horretatik bidaiariak sartzen ziren, haien gurdi eta zamariekin. Horrela, gurdi eta zamariak eguraldi txarretik eta lapurretatik babesten zituzten.

Eraikineko solairu bakoitzak bere erabilera zuen: ukuilua, upeltegia, denda, jantokia, logelak...

Eraikuntzako materialak Erdi Aroko etxe herrikoietakoak dira: harrizko oinaldea eta zurezko eta adreiluzko bilbaduraz eginiko fatxada.

Egun, jatetxe ospetsua dago hor.



Gobeo-Landazuritarren etxea

GOBEO-LANDAZURITARREN ARMARRI ETXEA

(XVI. mendearen bukaera)

Gobeo-Landazuritar familiaren bizileku gisa eraiki zuten.


Hirurogeigarren hamarkadan, eraikina birgaitu zuten.


Ordutik, bertan izan zen Arkeologia Museoa, 2009. urtean Bibat Museora eraman zuten arte.

8. AIZTOGILE KALEA

Erdi Aroko hiriaren bigarren zabalkundean sartu zara oraintxe. Gaztelako beste errege batek, Alfontso X.a Jakitunak, eraikiarazi zuen 1256. urtean. Horretarako, muinoaren ekialdea urbanizatu zuten. Hiru kale sortu zituzten: Aiztogile eta Pintore kaleak eta Judutegi kalea (gaur, Barnekale Berria) eta beste horrenbeste kantoï.

Hauxe izan zen emaitza: XIII. mendearen erdialdean eratutako hiri eremu hura ez zen berriz handitu XVIII. mendearen bukaera arte.





Bendaña jauregiaren barnealdea

BENDAÑA JAUREGIA (XVI. mendea)

Jauregi errenazentista da. Garbi ikus ditzakezu babeserako egitura baten berezko elementuak (kubo edo dorrea, matakana) eta bizilekutarako jauretxe baten berezko elementuak (lehiateak, fatxadako dekorazioa, galeria arkupedunak...).


Barrualdean, zaharberritu zutenez geroztik, Bibat Museoa dago,, Karta eta Arkeologia museoak batean biltzen dituena.

SOKAREN ETXEA (XV. mendea)

Santxez de Bilbao merkatari-familia judu kristautuaren bizilekua zen.

Barrualdean, XIII. mendeko babes-dorrea dago; haren inguruan eraiki zuen etxea Santxez de Bilbaok.

Aipatzekoak dira, baita ere, fatxadako apaingarriak: ate gaineko soka frantziskotarra, errege ezkutua, etxeko salerosketa- zigilua...



Sokaren etxea

Erdi Aroan hirian bizi ziren gizarte-taldeen eta talde etnikoen artean, aipagarriak ditugu hauek:



a) **Herri xehea:** artisauak eta merkatari txikiak ziren; baita nekazariak ere (kopuru txikiagoan)

b) **Nobleak:** landatik zetozen, eta XIV. mendetik aurrera kokatu ziren hirian. Berehala oso gizarte-klase ahaltsua eta eragin handikoa eratu zuten, batez ere Aro Modernotik aurrera. Izan ere, ezkontzen bidez, hiriko salerosle aberatsenekin elkartu ziren.

c) **Juduak:** nahiz eta hiriko oso inguru mugatuan bizi (Judutegi kalean, gaur Barnekale Berria den horretan), eragin handia zuten, salerosketa- eta artisautza-jarduerengatik. Gure hirian, garrantzi handia izan zuten medikuntzan ere.



d) **Kleroa:** parroketako apaizak eta komentuetako fraideak ziren. Oso gizarte-talde ugaria zen, eta eragin handia zuen hiriko bizitzan, erlijioaren eremuan ez ezik, baita kulturaren, gizartean eta politikan ere.

Gaur egun, gizarte-, ekonomia-, kultura- eta erlijio-ezaugarri ezberdinak dituzten gizabanakoak bizi dira auzoan. 2018ko erroldaren arabera, auzokideen %23a atzerrian jaio dira (30 herrialde ezberdin baino gehiagotan). Nazionalitateari dagokionez, %19a atzerrikoa dute..

Hiri askotan, alde zaharrek etxebizitza eta instalazio zahar eta deserosoak zituzten. Gainera, bertako bizilagunentzako zerbitzu gutxi zituzten auzo horiek. Baina egoera aldatzen ari da. Gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio alde zaharrak zaharberitzeari.


Gure hirian, Udalak urte asko daramatza hirigune zaharrearain hainbat ekintza egiten (ekintza fisikoak, gizartekoak, ekonomiakoak, kulturakoak...), bizigarritasun-baldintzak hobetzeko asmoz.



Aitzogile kalea

9. JARDUERAK

9.1. BEGIRA IEZAIOSU hirigune zaharraren plano honi, eta **EGIN ITZAZU** ondorengo ariketa hauek:



- ✓ Errepara iezaiezu planoan ageri diren kaleen eta kantoien izenei, eta osatu falta diren kale izenak.
- ✓ Kolore bana erabiliz, planoan margo itzazu ibilbidean esplikatu ditugun hiru eremuak: hiriko gainaldea edo Gasteiz herrixka sortu zeneko hirigunea; 1181. urtean mendebalderantz eginiko lehen zabalkundea; eta 1256. urtean ekialderantz eginiko bigarren zabalkundea.
- ✓ Adieraz itzazu planoan ondorengo eraikin hauek: San Miguel eliza, Montehermoso jauregia (gaur egun izen bereko kulturunea Oihaneder Euskararen Etxea hartzen duena), osasun-etxea, Landatxo gizarte-etxea, Luis Aranburu musika-eskola eta sinesmen ezberdinetako erlijio-egoitzak.

9.2. OSA EZAZU Erdi Aroko eremuaren hirigintza-ezaugarriei buruzko testu hau.

Aukeratu zuriune bakoitzari dagokion hitza: *Zapatari, muino, San Bizente, ekialdean, zentrokideak, sestra, almendra, kantoiak, Frai Zacarias Martinez, Judutegi.*

XII. mende hasieran, luzetara ezarritako hiru kalek eratzen zuten Victoria. Kale horiek bat zetozen oraingo Santa Maria, Eskola eta kaleekin. Hiribilduaren iparraldean, Santa Maria eliza-gotorlekua altxatu zuten; eta hegoaldean, gaztelua. 1181ean, hiru kale berri sortu zituzten (Aiztogile, Pintore eta kaleak), eta beste horrenbeste kantoï. Emaïtza gisa, Erdi Aroko hiriguneak kale ditu,-aren alde bietan (mendebaldean eta) lerrokatuta. Kale horiek kurbei jarraitzen diete, eta hirigune zaharrari itxura ematen diote.

9.3. LOTU ITZAZU Erdi Aroko kaleak haietako bakoitzean egiten ziren jarduera edo ogibideekin:

KALEA	JARDUERA EDO OGIBIDEA

9.4. IDATZ EZAZU zein gizarte-talde bizi zen etxebizitza mota bakoitzean.

Alportxa-etxeak:

Dorretxeak:

Jauregiak:

Jauretxeak:

9.5. IDATZI ondorengo eraikin hauek historian izan dituzten eginkizunetakoren bat:

ERAIKINA	EGINKIZUNAK
Doña Otxanda dorretxea	
Bendaña jauregia	
Sokaren etxea	
Portaloia	
Goiuri jauregia	

9.6. KONPARA ITZAZU Erdi Aroan Gasteizen ziren kulturak eta erlijioak, gaur egun ditugunekin.

9.7. IKER EZAZU auzoak dituen eraikin edo zerbitzu hauen izena eta helbidea:

- ✓ Osasun zentroak:
- ✓ Gizarte etxeak:
- ✓ Kirol instalazioak:
- ✓ Erlijio-eraikinak:
- ✓ Museoak:
- ✓ Kultura-zentroak:
- ✓ Erakunde publikoen bulegoak eta zerbitzuak:
- ✓ Aipagarriak iruditu zaizkizun beste zerbitzu batzuk:

Zer ezberdintasun ikusten dituzu Hirigune Zaharreko zerbitzuen eta zure auzoko zerbitzuen artean?

9.8. **BEGIRA IEZAI EZU** ondorengo taulan jaso ditugun Alde Zaharreko biztanleen datuei, eta **KALKULATU** zein den kontinente bakoitzetik datozenen ehunekoa.

Alde Zaharreko biztanleak, jatorriko herrialdearen arabera (1)		
JATORRIZKO HERRIALDEA	BIZTANLEAK	EHUNEKOA
ESPAINIA	6.974	81
MAROKO	403	4,7
ALJERIA	167	1,9
NIGERIA	134	1,6
PAKISTaN	101	1,2
KOLONBIA	79	0,9
PARAGUAY	68	0,8
ERRUMANIA	46	0,5
TXINA	40	0,5
SENEGAL	39	0,5
DOMINIKAR ERREPUBLIKA	31	0,4
PORTUGAL	29	0,3
BRASIL	28	0,3
VENEZUELA	27	0,3
ITALIA	25	0,3
EKUADOR	24	0,3
BOLIVIA	23	0,3
MAURITANIA	21	0,2
UKRAINA	17	0,2
PERU	16	0,2
GEORGIA	16	0,2
BESTE BATZUK	255	3,1
GUZTIRA:	8.578	100,0

(1) Iturria: Biztanleen Udal Errolda, 2018-01-01.

9.9. IKASGELAKO EZTABAIDA

Pentsa itzazu Hirigune Zaharrean bizi direnen bizi-baldintzak hobetzen lagunduko duten proposamenak, eta eztabaidatu itzazu ikasgelako lagun guztiekin.

10. GLOSARIOA

ALPORTXA-ETXEA: Gasteizko zein beste hiri batzuetako Erdi Aroko kaleetan tipikoa den etxe mota. Etxe mota horrek ezaugarri bereziak ditu: oso estua eta oso sakona da; horregatik, leiho bat edo bi jartzeko lekua baino ez du izaten.

AUZOTERIA: kale berean edo kantoian arteko kale-zati berean bizi ziren auzotarren multzoa. Elkar babesteko eta guztien intereseko gaiak lantzeko (garbiketa, zaintza, suteei aurre egitea...) elkartzen ziren auzotar horiek.

BILBADURA: zurezko egitura, horma, trenkada edo zorua egiteko balio duena.

ESTILO GOTIKOA: Europan Erdi Aroko azken hiru mendeetan garatu zen arte-estiloa. Estilo erromanikoaren bilakaera gisa abiatu zen. Arkitekturan, ojibarkua edo arku zorrotza deritzon elementua erabiltzea du ezaugarri nagusi.

GALERIA ARKUPEDUNA: fatxadan edo patioaren inguruan jarritako espazio estalia, arkuekin edo zutabeekin eratua.

GEZILEIHOA: leihatila estua, geziak edo bestelako armak jaurtiz borrokatzeko eraikia.

GREMIOA: lanbide edo ogibide bereko maisu, ofizial eta ikastunek osatutako elkarte. Ordenantza edo estatutu berezi batzuek arautzen dute elkarte hori.

HEGALKINA: eraikin baten fatxadatik irten eta kanpoalderantz luzatzen den teilatu-zatia.

JUDU KRISTAUTUA: jatorriz judua izanik, ondoren kristautu egin den pertsona..

KANTOIA: bi kale lotzen dituen *kalexka*.

MATAKANA: eraikinetik kanporantz irteten den obra, horma, dorre edo ate baten gorenean dagoena. Parapettoa eta zorua du, eta etsaia ikusteko eta jazartzeko balio zuen.

MESKITA: musulmanek beren erlijio-errituak egiteko erabiltzen duten egoitza.

OINALDEA: eraikin edo obra baten beheko zatia.

SALEROSKETA-ZIGILUA: merkatari bat edo merkataritza-konpainia bat identifikatzen duen marka.

11. BIBLIOGRAFIA

MANZANOS, PALOMA; VIVES, FRANCISCA. *Las mujeres en Vitoria-Gasteiz a lo largo de los siglos*. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 2001.

MOZAS, JAVIER; FERNÁNDEZ, AURORA. *Vitoria-Gasteiz Guía de Arquitectura*. Gasteiz:: Euskal Herriko Arkitektoen Elkargo Ofiziala, 1995.

Erdi Aroko Gasteiz. Gasteizko Udaleko Hezkuntza Saila. Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala, 1993. Vitoria-Gasteiz Heziketarako Espazio Gisa.



Vitoria-Gasteiz
Ciudad Educadora
Vitoria-Gasteiz
Hiri Hezitzailea



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala